

2016ko 16 HAUTESKUNDE AUTONOMIKOETARAKO SAREEN SAREAREN PROPOSAMENAK

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak berdintasunezkoagoa eta barneratzaileagoa den gizarte-eredurantz aurrera egiteko 16 proposamen azaldu dizkie Euskadiko alderdi politikoei. Horien helburua esparru guztietan pertsona guztientzako honako hauek bermatzea da: babes soziala, irisgarritasun unibertsala eta diseinua, herritarren zerbitzura dagoen ekonomia solidarioa, aniztasunarekiko errespetua, elkarbizitzaren eta gizarteratzearen sustapena, nazioarteko lankidetzeta eta ekimen soziala sendotzea.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

www.sareensarea.eu

2016ko HAUTESKUNDE AUTONOMIKOETARAKO 16 SAREEN SAREAREN PROPOSAMENAK

Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politikoak haien hauteskunde-proposamenak amaitzen ari dira. Horiek, gero, herritarrei helaraziko dizkiete haien konfiantza lortu eta, hala, hurrengo lau urteotan, Eusko Jaurlaritzan sartu ahal izateko.

Azkenaldiko hauteskundeak testuinguru konplexuan ari dira gertatzen. Krisiaren gorabeherak eta aldaketa sozioekonomikoak eta demografikoak dira nagusi, eta horiek guztiek eragina izango dute gure gizartearen etorkizunean legealdi baten epe iragankorra gaindituta.

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Euskadiko biztanleriaren ongizatearekiko konprometituta dago eta, bereziki, egoera ahulenean eta zaugarrienean dauden horiekiko. Haien behar eta desioak partekatzen ditugu, haren partaide gara eta, horrenbestez, gune demokratiko honetaz baliatu nahi dugu gizarteari

eta hura ordezkatzeko aurkeztu direnei eraldaketa eta parte-hartzea oinarri dituzten gure aldarrikapenak ezagutarazteko.

Sareen Sareak gure komunitatean bizi diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzea helburu duen Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren aldeko apustua egin du. Haren oinarritzko helburuak honako hauek izan beharko lukete: gizarteratze eta kohesio sozialeko kuotak areagotzea eta eskubi-deen berdintasun eragingarria, inor ez dadin baztertuta geratu behar adinako ongizate mailatik, babes sozial egokitik edo gizaki eta herritar gisa osotasunean parte hartzeko aukeratik.

Gure ustez, herrialde honek gure komunitateko eskumen maila ugarien arteko erakunde arteko adostasuna behar du gizarte-politika ugariak beharrezko baliabideekin eta estrategia eta helburu argiekin garatzea bermatu ahal izateko.

Sareen Sarea da Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko (HSS) elkarten sareak biltzen dituen elkarte. Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza eta jarduera duten ekimen sozialeko 3.500 erakundek osatzen dute sarea eta horren helburu nagusia esku-hartze sozialeko jardueren bidez honako hauek bultzatzea da: garapenerako lankidetzak, gizarteratzea eta zaugarritasuneko edo bazterkeriako, desberdintasuneko, babesgabeziako, ezintasuneko edo mendekotasuneko egoerak bizi dituzten pertsonen, familien, taldeen, kolektiboen eta komunitateen eskubideak modu eragingarrian erabiltzea.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Krisiaren eta desberdintasunaren, txirotasunaren, eskastasun estrukturala eta larrialdi soziala areagotu izanaren ondorioz, beharrezkoa da dimentsio guztietan herritar guztien ongizatea bermatzera eta kolektibo sozial jakin batzuk ongizate arloko behar adinako mailetatik baztertuta geratzea ekiditera bideratutako politika eta jardueri lehentasuna ematea.

Baina ez dira horiek hauteskundeetatik aterako diren hurrengo Legebiltzarraren eta Jaurlaritzaren arreta eskatzen duten erronka bakarrak. Euskadiko biztanleria nabarmen ari da zahartzen eta Europako jaiotza-tasa baxuena dugu. Gure hiriek diseinu irisgarria eta adiskidetsua behar dute, pertsona guztien bizitza independentea eta autonomia erraztuko duena.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasun osoa lortzeko bide luzea dugu aurrean. Solidarioak ez diren edo per-

tsiona edo talde sozial batzuekiko estigmatizazioa bultzatzen duten jarrerak eta portaerak desagerrarazteko ahaleginak bikoiztu beharra dago. Giza garapena ingurumena errespetatzen duen eruduntz bideratu behar dugu.

Erronka horiei guztiei aurre egitea gobernua betebeharra da, baina ezinezkoa da bakarka egitea. Gizarte osoaren inplikazioa eskatzen du eta, horrenbestez, gobernantza arloan antolatutako ekimen sozialaren lankidetzak, elkarlan eta parte-hartze demokratikoa. Horren guztiaren helburua herritarrek eta gizarte-erakundeek haiengan eragina duten erabaki politikoetan eta ekonomikoetan ondorioak izatea da.

Horrekin lotuta, Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politikoei eskatu nahi diegu Sareen Sareak egindako gizarte mailako 16 proposamenak eztabaida eta kontuan har ditzatela.

Euskadiko sektore sozialak 127.000 boluntario inguru biltzen ditu eta zuzeneko enplegua ematen die kontratatutako 36.000 laguni. Beste nolobait esanda, EAEko langileen % 4 biltzen du sektoreak. Kudeatutako bolumen ekonomikoa 1.451 milioi euro ingurukoa da; hau da, EAEko BPGaren % 2,2ren baliokidea. Sarearen Sarearen helburuetako bat da politika publikoetan eta ongizateren eredu sozialaren defentsan modu aktiboan parte hartzea eta eragina izatea, bidezkoa, kohesionatua, barneratzailea, solidarioa, demokratikoa eta parte-hartzailea den elkarriketako eta solaskidetzako guneak bultzatuta.

1. Ezinbestekoa da egungo **Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema** mantentzea eta sendotzea bi helbururekin: herritar guztientzako gutxieneko sarrerak bermatzea eta eragingarriak diren gizarteratze-politikak abian jartzea.
2. **Zerbitzu publikoetara** sarbide unibertsala eta berdintasunezkoa bermatzea modu eragingarrian, eta bereziki egoera ahulenean dauden pertsonena, inolako bereizkeriarik gabe eta aukera-berdintasun osoz. Arreta jasotzen duen biztanleriaren ezaugarrien eta behar pertsonalen arabera, egokia, kalitatezkoa eta indibidualizatua den arreta eskatzea zerbitzu horiei.
3. Pertsona guztiak kalitatezkoa eta duina den **enplegua** izateko eskubidea bermatzea, eta arreta berezia jartzea lan-merkatura sartzeko zailtasun gehien dituzten pertsonengan haien enplegarritasuna eta gizarteratze eta lan-munduratzeko osoa hobetzeko.
4. **Gune soziosanitarioa** garatzea. Osasun eta gizarte-zerbitzuen sistemak pertsonaren beharren eta ezaugarrien arabera sortu, diseinatu eta eskaini behar dira, eta ez sistemen arteko bereizketatik eratorritako mendekotasunaren arabera.
5. **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren** konfigurazioa osatzea, sistemaren harmonizazioan arreta berezia jarrita. Horren helburua hiru lurraldeetako pertsona guztien arteko zerbitzuen hornikuntza ekitatiboa bermatzea litzateke, esku-hartzearekin lotutako komunitate-eredua garatuta eta prebentzio-politikak bultzatuta.
6. **Etxebizitza** duina, egokia eta irisgarria eskuragarri izateko eskubide eragingarria bermatzea, eta etxerik ez duten pertsonentzako arreta orokorreko (sistema publiko ugariak inplikaturak) eta integraleko (arreta prebentzioan, laguntzan eta gizarteratzean jarrita) euskal estrategia prestatzea eta garatzea.
7. **Hezkuntzarako** eskubidea bermatzea, behar bereziak dituzten pertsonen barneratzea benetakoa eta eragingarria izan dadin beharrezko baliabideak eta laguntzak bideratuta. Hezkuntza-sistemaren helburuak honako hauek izan beharko lukete: pertsona autonomoak eta espiritu kritikoa dutenak trebatzea eta genero-berdintasuna sustatzea.
8. Bizitza-luzeraren inguruko estereotipo negatiboak baztertzen dituzten eta bizitza-itxaropen osasungarria eta autonomia areagotzen duten **zahartze aktiboko politiken** aldeko apustua egitea.

9. Familiei Laguntza emateko 13/2008 Legea garatuko duen **familiaren eta haurtzaroaren** Euskadiko estrategia hedatzea. Beste hainbat neurriren artean, familiako kontziliazioko politiken aldeko apustua egin beharko luke.
10. **Irisgarritasun unibertsaleko** estrategiarekiko konpromisoa eta pertsona guztientzako diseinua esparru guztietan (gune publikoak, garraioa, eraikuntza, hezkuntza, osasuna, aisialdia, kultura, kirola, ICTak eta abar), aplikazioarekin eta betetzearekin lotutako gizarte-eragile guztiak zein herritarrak inplikatu.
11. Pertsonen ongizatearekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin lotutako irizpideak lehenestea **ekonomian**. Ekonomia Sozialeko, Ekonomia Solidarioko eta irabazi-asmorik gabeko Hirugarren Sektoreko jarduera ekonomikoen garapena bultzatzeko.
12. Herritarren ongizate soziala bermatzen duten politiketan, **edozein murrizketa ekiditea** eta, bereziki, desabantaila eta zaugarritasun handieneko egoerak bizi dituzten pertsonengan eragina dutenetan. Sarrerak areagotzea politika horiek hobetzeko. Horretarako, fiskalitate progresiboagoa bultzatu, eta iruzurrari eta zerga-saihesteari aurre egin beharko litzaioke.
13. **Aniztasuna** kudeatzeko eta **elkarbizitza** bultzatzeko politikak garatzea, gizarteratzea eta integrazioa errazte aldera. Solidarioak ez diren, arrazistak diren edo beste pertsona edo talde sozial batzuekiko gorrotoa edo estigmatizazioa bultzatzen duten jarrerak eta jokabideak mantentzearen edo azaltzearen aurka gitea.
14. **Nazioarteko lankidetzako** politika sendotuta eta koordinatuta da goen eta egonkorra den politika publiko gisa onartzea. Espezifikotasuna eta balio erantsia kontuan izanda, GGKE-ekin batera partekatu beharko litzateke, Lankidetzako Euskadiko Legeak xedatutakoa erabat garatu ahal izateko, eta lankidetzara bideratutako erakundearen guztizko aurrekontuaren % 0,7ko tasa historikoa beteta.
15. **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legea garatzea** eta hedatzea legeak aurrez ikusten dituen epeen arabera: HSS sustatzeko estrategia, Hirugarren Sektorearen Euskadiko Behatokia abian jartzea, HSSko erakundeen errolda eta abar.
16. Hirugarren Sektore Sozialarekin **kontzertazio sozialeko** testuinguru juridiko berezia onartzea erantzukizun publikoko zerbitzuak eskaintzeko. Hori guztia Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legean ezarritakoaren arabera egin beharko litzateke.